

Aurten itsaspeko arkeologia ikasgai



Tadeo Jones 2: Midas erregearen sekretua.

SERGIO BASURKO

Pandemia madarikatuak bigarren aldiz eragotzi du belodromoa zinema areto erraldoi gisa erabiltzea, baina iaz bezala, aurten ere ikasleentzako emanaldiak ikasgeletara eramango dituzte, eta, bertan, zientzia zinemaren bidez hurbiltzeko helburuari eutsiko diote.

Hala, Gipuzkoako 64 ikastetxetako –aurreko urtean 53 izan ziren– milaka ikaslek *Tadeo Jones 2: Midas erregearen sekretua* filma ikusiko du-

te, Maria Intxaustegi itsaspeko arkeologoak egingo duen aurkezpena tarteko.

Filmari sarrera eman eta mundu osoan zehar murgildutako ondarea ikertzen izandako esperientziak hitz egingo du Mariak. Halaber, filma ikusi ondoren, hurrei sortzen zaizkien galderari gerora erantzuteko prest egongo da Maria; izan ere, ikasleei galderak bidez bidaltzea proposatuko zaie, baita saioko argazkiak, marrazkiak edo landutako gaiarekin lotutako eskulanak partekatzea ere.

Arkeologia baita, izan ere, *Tadeo Jones 2: Midas erregearen sekretua* animazio-film luzearen haria; Enrique Gato eta David Alonsok zuzendua, Tadeo Jonesek Las Vegasera bidaiatuko du Sara Lavroff arkeologo ospetsuaren azken aurkikuntzaren aurkezpenera joateko: Midas errege mitikoaren lepokoa existitzen dela frogatzen duen papiri bat, hain zuzen.

Ezin aipatzeke DIPCen lankidetzak ekimen honen gauzatzean. Donostia International Physics Center fisika eta antzeko diziplinak ikertzeko nazioarte-

Itsaspeko ondarea ikertzen

Maria Intxaustegi (Donostia, 1989) itsaspeko arkeologoa, itsas historialaria, kapitaina, urpekari profesionala eta espedizio-gidaria da. Jakin-minez beteta eta itsasoaz erabat maiteminduta, itsaspeko arkeologian aritzeko urpekari profesional bihurtu zen, eta mundu osoan zehar ibili da itsaspeko ondarea ikertzen. 2015ean, Texas A&M Universityn zegoen bitartean, historia-ikasketak ordaintzeko, profesionalki nabigatzen hasi zen eta, azkenean, kapitain-titulua lortu zuen. Harrez geroztik hona, belaontzi handietan lan egin du, batez ere Itsaso Australean, Aro Modernoko espedizioak eta



hondoratutako itsasontziak ikertzen. Gaur egun, espedizio-gidari gisa egiten du lan Antartikan eta hainbat uharte eta urrutiko tokitan, bidaiariei fauna basatia, glaziarrak eta itsasoak zeharkatu zituzten lehen nabigatzaileen historia erakutsiz. Itsaspeko ikerketak ere egiten ditu Ondaresub erakundearekin, eta XVIII. mendeko Habanako ontzietan buruzko doktoretza bat burutzen ari da.

ko zentroa da, eta, gainera, ezagutza zientifikoa gizartearekin partekatzeko ardura hartzen du bere gain. 2019az geroztik, Euskadiko Filmategiarekin batera, Zinemaldian parte hartzen du, eta Belodromoan ikasleentzat egin izan diren emanaldiak antolatzen ditu.

Urtean zehar, DIPCek kultura zinematografikoa eta zientifikoa transmititzea helburu duten filmak progra-

matzen ditu Tabakalera, eztabaidak eta dibulgaziozko hitzaldiak sustatuz. Gaur egun, nazioarteko 5.000 zientzialarik baino gehiagok lan egiten dute Donostian; izan ere, zifra horren arabera, Europan biztanle bakoitzeko zientzialari gehien dituen hirietako bat delarik. Horrek agerian uzten du zinemako hiria izateaz gain, Donostia zientziako hiria ere badela.

ETORKIZUNAREN

HAR
PI
DE
DUN

GARA

Jenderik hoberenari esker.

www.naiz.eus



naiz: